

SAN JOAN BEZPERA. Piezen letrak

Formulak:

- **Zer erran salto egitean:**

Onak barnera, gaiztoak kanpora, sarna fuera!

- **Zer erran min hartzean:**

Senda, senda, mina,

kaka urrina.

Joan da zure mina.

Ako mina!

Zotz egiteko:

Din dan maleran,

malerako elizan.

Elizako plazan

hiru atso dantzan.

Batak bertzeari,

haren graziari,

peleinkon, peleinkon!

Martin buru gogorra,

non duk hire behorra?

Nik aizkora, hik aizkora,

biok malda gora!

Ipuina:

- **Artzainari ebastera joan** (elkarrizketak musikatuak dira)

Munduan anitz diren bezala, eta nire moduan, baziren gose handia zuten bi lapur. Egun osoa zeramaten jan gabe, eta pentsatu zuten artzain bati lapurtuko ziotela bildots bat.

Ilunabarra iritsi zenean, artzain baten etxolara hurbildu ziren. Patapatun, patun, patun!
Patapatun! Patapatun!

Artzainak etxolaren ondoan zituen ardiak, eta barruan zegoen afaltzen lasai ederrean
sutondoan. Hori ikusita, lapurrek plan bat prestatu zuten:

- Bueno, ni joanen nauk eta entretenituko diat pixka bat, eta hik aski duk orduan, ttak!
lapurtzea bildots bat. Horrela gero janen diagu.

- Ados!

Lapurretako bat artzainarengana joan zen eta harekin solasean hasi zen:

- Gabon!

- Baita zuri ere!

Solas eta solas, bitartean kanpoko aldean zegoen bertze lapurra, adi, leihotik begira.
Barruan sua zegoen eta ardiak han ziren. Orduan, barruan zegoen lapurra arrimatzen hasi
zen eta kantari erran zion bertzeari:

- Zikiro beltza ona da baina, hobe buztan zuria.

Izan ere, lagunari jakinarazi nahi zion buztan zuria hobe zela. Orduan bertzea buztan
zuriarengana hurbildu, hartzen hasi eta bat-batean sua pixka bat piztu zen, eta berriz
kantatu zion:

- Estal hadi, estal hadi,
ageri haiz erdia.

Su honek argitzen baldin badu,

ageriko haiz guztia.

Lagunari hori adituta, gorde egin zen eta horrela lortu zuten artzaina engainatzea eta
bildotsa ebastea.

Erran zaharrak eta esamoldeak:

- Goseak hila
- Bi sosen pupua eta lau sosen trapua
- Altsu eta maltsu, biak igualtsu

Irainak:

- Tripazain hori
- Mainontzi putz